

## **Andako Done Eztebe elizak hil honetan amaituko ditu barrualdeko horma margoak**

*Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak, Carlos Garcia Llata Gasteizko Gotzaindegiko bikario nagusiak eta Zaharberitze Zerbitzuko kideek bisitatu dute*

**Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 2a.** Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak, Carlos Garcia Llata Gasteizko Gotzaindegiko bikario nagusiak eta Arabako Foru Aldundiko Zaharberitze Zerbitzuko kideek Andako Done Eztebe elizan izan dira gaur Kuartangon, datozen asteetan amaituko baita bertako horma pinturen zaharberitzea.

Ana del Val buru duen Kultura eta Kirol Sailak eta Gasteizko Gotzaindegiak Gasteizko Elizbarrutiaren jabetzako ondasun higigarriak kontserbatzeko eta zaharberitzeko sinatu duten hitzarmenaren bidez aurten onetsi diren bost jarduketetako bat da. Kasu honetan, Kuartangoko Udalaren eta Andako Administrazio Batzarraren laguntza ere izan du Andako elizako jarduketak.

Andako parrokia eliza Erdi Aroko eraikina da. Burualde zuzena du, kanoi ganga zorrotzaz estalia, habeartearen beste bi atalak bezala. Atal ezberdinak bereiziz, Andako elizak Martin de Zarandona hargin maisuak XVI. mendean egindako parpain-arkuak ditu. Ezkerraldetik sartuta, Santa Katalina kaperago, 1524an eraikia eta kanoi gangaz ere estalia.

Elizaren barrualde osoa, hau da, gangak, paramentuak, korua eta kaperak, horma pinturez estalita daude. Gangak zero izartsu batez estalita daude, paramentuak harlanduen ataltzeaz, zerrendak eta parpain-arkuak hondo gorriaren gainean errolez eta maskorrez margotuta daude, eta pilastrak grisaila moduko kartekez. Margolanak Ruperto Aldamarenak eta Lorenzo Viguriarenak direlakoan daude eta 1869an egin ziren. Horien azpian, gutxienez, aurreko garaietako beste bi horma-pintura daude, ziurrenik barrokoa eta errenazentista.

Estalkiaren aspaldi bateko hezetasun arazoengatik, dagoeneko konponduak, pinturek hauts asko zuten, euskarririk bereizita zeuden, hezetasun orbanekin eta, alderdi askotan, batez ere zokaloan, kenduta zeuden.

Nabe barruko pinturak zaharberitzeko lehen fasea 2017an egin zen, eta Kultura Ondarea zaharberitzeko enpresak, Cromak, egin zituen. 2021ean, zaharberitzearen bigarren fasea Petra enpresari esleitzea erabaki zen, Zaharberitze Zerbitzuaren zuzendaritzapean eta ikuskaritzapean. Datozen asteetan bukatuko dira lan horiek.

37.715,70 euroko inbertsioarekin, aurten elizako gainerako horma-pinturak zaharberituko dira, koruko eta Santa Katalina kaperako pinturak barne.

"Done Eztebe elizako horma-pinturen zaharberitze osoak XIX. mendeko horma multzo bat berreskuratuko du, eta, horrela, Arabako elizaren adibide bat ezagutuko dugu, barrualdea erabat margotuta duena", adierazi du Ana del Valek.